PRENTSA DOZIERRA

20 OCTOBRE 2007 - CHAMBRE D'AMOUR - ANGLET - A PARTIR DE MIDI

ANGELUKO GAZTEAK

5e ANNIVERSAIRE

5. URTEBETETZEA

2007ko URRIAREN 20an - AMODIOZKO GANBARA - ANGELU - EGUERDITIK GOITI

EZ AHANTZ!!
PRENTSAURREKOA
Urriaren 16an asteartez
Amodiozko Ganbararen harpean
Goizeko 10etan

2007ko irailaren 7an
Angeluko Gazteak elkarteak
burututako dozierra

angeluko gaztetxea

AURKIBIDEA

www.angelukogaztetxea.eremua.info

1 ELKARTEAREN AURKEZPENA.....3. orrialdea

Bere historia.....3. orrialdea

Burututako afitxa batzu.....4. orrialdea

2 GERTALDIAREN AURKEZPENA.....5. orrialdea

Afitxa.....5. orrialdea

Egunaldiaren eta gaualdiaren egitaraua.....6. orrialdea

Partaideen azalpena.....7. orrialdea

Gaztetxallenge ®.....10. orrialdea

Gunearen planoa .....11. orrialdea

3 BIDEO LEHIAKETA.....12. orrialdea

Arauak.....12. orrialdea

Sariak.....12. orrialdea

Noiz.....12. orrialdea

4 HARREMANETAN JARTZEKO.....13. orrialdea

ANGELUKO GAZTETXEA

5e anniversaire
5. urtebetetzea

www.angelukogaztetxea.eremua.info

1 ELKARTEAREN AURKEZPENA

Bere historia

Angeluko Gazteak elkartea 2002an sortu da. Bere helburua gazteendako eta gazteengandik gertaldiak antolatzea da. Bere egitasmoa Angelu dinamizatzea da eta etortzen den publikoa inguratzen gaituzten plobematikei sentikortuz: euskara, arazo sozialak (lobizitzak, lana, inguramena), droga, etabar,...

Horrela, bost urtez animazio eta gertaldi desberdinen antolaketan aritu gira:

-**Herriko besten karietara kontzertua** (2005 eta 2006): gaualdi bakoitzak 800 gazte eta ez hain gazte bildu ditugu.
-Kirol animazio batzu : **ZANGO JOKO** (seinakako futbol lehiaketa Girouetttes zelaian, urtero 500 jokolari baino gehiago elkartzen dira) eta **BEACH ZANGO JOKO** (beach soccer torneoa)
-**Xi fu mi kontezta** (harri, hosto, aixtur): 300etik 400era jendek gauldi hoietan parte hartzen dute urtero.
-**Gai desberdinetako gauldiak** (olentzero, ihauteriak, errusiar gauldia, tahiziarra,...)
-**Mintzaldien antolaketa** gai desberdinei buruz : Txiapaz, droga.
-**Inguramenaren inguruan sentikortasunak** : hondartz hautsontzien banaketa, erakusketen burutzea, hondartzlariekin topaketa,...)
-Beste elkarteekin batera gertaldiak antolatu ditugu: **ROYAL SINGLE TROPHY** (surf lehiaketa), **MARMITAKO TXAPELKETA**, **ANGELUGETXOLINPIKOAK** (Getxo eta Angeluko herrien arteko kirol senidetzea), **GLISSEGUNA** (lerra kirolen iniziazioa euskaraz Seaskak antolaturik), etabar,...

Bost urte horietan, elkartea esperientzi desberdinei esker aberastu da, eta gaur egun 30 gaztek kolektibo hori osatzen dute. 18 urtetik 30 urtetara doan Angeluko gazte motibatuak gira.
Bosgarren urtebetetze hau egoera onenetan gainditzeko, besta hori belaunaldi askotakoa izanen da eta hasitako dinamika hortan sartuko da.

Burututako afitxa batzu



Afitxa

ANGELUKO GAZTETXEA
le gaztetxe fete ses 5 ans !!
gaztetxeak 5 urte ditu !!
hori hori !!
ouais carrement ouais !
'pecable !
j aime bien les fleurs rouges
5
la caution
rap alternatif - paris
cellule x • root'system
elektro rap fusion - poitiers
roots reggae dub - hendaia
equal brothers • willis drummond
roots dub sound system - baiona
rock - heleta
david cairol • kes sece
reggae soul funk - angelu
three men show - angelu
tortuga sound system
sound system - angelu
begirunea
dantza - eh/bdx
gaztetxallenge
mutxikoak
eta sorpresak !!
8€
20/10/07
chambre d amour
chapiteau
à partir de 12h00
12etatik goiti
www.angelukogaztetxea.eremua.info

Egunaldiaren eta gaualdiaren egitaraua

> Noiz : 2007ko urriaren 20an larunbata

> Non : Amodiozko Ganbaran, karpapean

12ak : Egunaren idekitze ofiziala

Arratsaldeko 1ak : Apairu herrikoia dendariak eskainirik

Belaunaldi desberdinak xutik hartutako apairuan elkartuko dira (Angeluko harakinek eskainirik). Bazkaria TORTUGA SOUND SYSTEM (Angelu - Sound System) taldeak animatuko duelarik.

Arrats. 2etatik 5ak arte : Kontzertuen hasiera eta GAZTETXALLENGE ®

Beste bi musika taldek segida hartuko dute:
-KESSECE (Angelu - Three Men Show)
-DAVID CAIROL (Angelu - Reggae Soul Folk)

Ber denboran, **GAZTETXALLENGE ®** lehiaketa proposatua izanen zaigu (GAIA elkarterakin): Herri joko eta karia hortarat asmatutako jokoen nahasketa. Lehiaketa ondoren, Herri Kirol erakustaldia izanen dugu, Iparraldeko jokolari hoberenekin.

Arrats. 5etatik goiti : Dantza emanaldia eta mutxikoak

Afrikar dantza eta euskalduna nahasten duen BEGIRUNEA konpainiak (Euskal Herria - Bordale) bere emanaldia aurkeztuko digu eta MUTXIKOek segida hartuko du.

Arrats. 7ak : Gaueko kontzertuak

-ROOT'SYSTEM (Ska Reggae - Hendaia)
-WILLIS DRUMMOND (Rock - Baiona)
-CELLULE X (Electro Rap Fusion - Poitiers)
-LA CAUTION (Frantses Rap Alternatiboa - Parise)
-EQUAL BROTHERS SOUND SYSTEM (Reggae Roots Dub - Baiona)

+ musika taldeen artean : euskal dantzak (ANGELUARRAK dantza taldearekin), bideoak, eta sorpresak,...

Goizeko 3ak : Gaualdiaren bukaera

Elkartearen helburua denei idekirik dagoen egunaldia antolatzea delarik, sartzearen prezioak ez ditu 8 €ak gainditukо eta arratsaldeko 5ak aintzin, sartzea 5 €tan izanen da.

Egun hori irudiztatu ditugun baldintzetan pasa nahi genuke, gure 5. urtemuga den etapa hori egoera onenetan gainditzeko !!!

TORTUGA SOUND SYSTEM (Sound System - Angelu)

Trikitixa uztea hausartu den orkestra tiki horrek platinetatik jamaikar musikaren vibes onak ateratzen ditu. Roots ... Rock ... Reggae ! Ezin hobeki zintzur bustitzearentzat !!

KESSECE (Three Men Show - Angelu)

Kessecé

Berriz hartzerik gabe, ezeta Citroën Xantia berri batentzat. % 80a frantsesa, %5a Danone-tik brasildarra, %5a Brownies-etik inglesa, %1a switxa, %2a eslaviarra, %4a jemeniarra eta %3a ezezaguna. Arbolaren biziak kario balio du. Horregaitik, Kessecé taldeak idatzigabeko kantuak eskaintzen dizkigu, paper gehiegi ez sahutzeko. Munduko hitzlari guztiak haien hiru kanturekin gauza bera egiten balute, ehun urteko 132 651 arbol bizirik ateratatzen ahal zitezkeen.

Ez diozue deus ulertzen ? Normala da, haien emanaldi xelebreak nahitaez zuen buruari galdetuko baitio : baina kessecé ? (" Zer da ? ").

http://www.myspace.com/kessece

DAVID CAIROL (Reggae Soul Folk - Angelu)

David Cairol

Bere kantuak reggae, soul eta folk estiloetatik hartzen ditu. Hasieratik, bere musikak nortasun sentikorra baita sendoa ere emaiten dio. Bere ahots indartsu eta bereziak testu zorrotzak bihotz erdira botatzen dizkigu.

Bere lehen emanaldietan ukan dituen sustatzeek animatu dute eta orain baino iñoiz jokatzen du. Gitarrarekin bakarrik edo ta bidean aurkitu dituen musikariekin batera.

http://www.davidcairol.com/
http://www.myspace.com/davidcairol

BEGIRUNEA (Afrikar & euskal dantzak - EH/Bdx)

Begirunea

Dantza, antzerkia eta musika nahasten duen pieza proposaten digute Begirunea konpainiak "Ouvrez vos oeillères" ikusgarrian. Bi haur, hizkuntza desberdinekoak elkar topatzen dira. Bakotxaren arrotasuna gainditzuz, beste molde batean ulertuko dira, dantzaren hizkuntzan. Euskal dantza beste molde batez aurkezten dute afrikar dantzari omenaldia eginez ere. Txalapartaren taupadak eta atabalaren erritmoak cajon, djembe, krin, agogo, n'goni, sanza, doundoun, serouba eta maracas-ekin nahasten dira. Mugimenduak eta soinuak, jatorri desberdinatik sortuak badira ere, elkartzen dira hemen begirune osoz. Emanaldia, gum boots dantzarekin bukatzen da, esklabuen eta beltzen borroka omentzeko. Ikustekoa...

http://begirunea.canalblog.com

ROOT'SYSTEM (Reggae Roots Dub - Hendaia)

Root'system

Euskal reggae oholtzagaineko talde ezin hutsegina, Root'system taldeak ez du gehigo deus frogatzekorik. Beren azken diskoaren ezagutzeko parada ezin hobea, Angelura etorriko bai dira aurkeztera.
Zinezko sustrai reggae eta jatorrizko dub baten berpizten jarduten dute. Kantariaren ahots indartsu batek eramanik afrikar erritmoak present dira eta karpa azpian giroa beroa izan daiteke ikusentzuleen gibelak mugitzen hastean.

www.rootsystem.org

WILLIS DRUMMOND (Rock - Heleta)

Oholtza gaineko taldea eztabaidarik gabe, hain zuzen ere eszenatokian du guzia emaiten talde birantolatu honek. Bere erakustaldiek sekulako zarta emaiten dute. Bi gitarra, gitarrapal bat, bateria bat eta euskaraz ari den ahots paregabe batez osatua dugu WillisDrummond. Egiazko eta zinezko Rock'n Roll-a, norberaren buruak gogorki astintzeko moldekoa! Hitzordua hartua da... ez huts egin!!!

http://www.myspace.com/willisdrummond


Willi's Drummond

CELLULE X (Electro Rap Fusion) - Poitiers)

Poitiers-etik zuzenean datorkigun taldea, elektro, hip hop eta gitarra pizuen arteko nahasketa zoragarri bat, besterik ez!!! hori da Cellule X. Bérurrier noir taldeak aurkiturik soinu azkarra igortzen dute. Gainera, aski ez balitz bezala, BJ (bideo jartzaile) batek soinu eta irudia elkartzen ditu pantaila erraldoi batean gure begibelarrien zoramenerako. 2006an jadanik etorri zitzaizkigun eta berriz ere hor ditugu, oraino azkarrago!

http://cellule-x.com
http://www.myspace.com/cellulex

LA CAUTION (Frantses rap alternatiboa - Parise 93)

Frantses Hip Hop oholtzagainean aparte den taldea dugu La Caution. Noisy le Sec-etik datorzkigun Hi Tekk eta Nikkfurie bi anaiek soinu nortasun azkarra dute. 1996tik damazkiten proiektu eta kontzertuek zinezko fama azkar bat eraikiarazi diete.
Assassin taldearen kontzertuetan jardunez ezagutuak izaiten hasiko dira. Musika eta hitzen ikuspegi berezia du bikote honek eta beren hitzek finezia eta indarra nahasten dituzte, gainera beti berrikuntzaren gibeletik dabiltza. Oraingo frantses rap mundutik aldendu nahian berpizkunde bat ekartzen dute TTC bezelako taldeekin.

La Caution

" Thé à la menthe " titulua, Ocean's twelve filman agertu zen Vincent Cassel altoreari esker, La Caution-ekin batera " Kourtrajmé " kolektiboan izanik.
Sheitan ezizenarekin agertu dira baita ere ber izeneko filmaren soinuan.

www.la-caution.net
http://www.myspace.com/lacaution

EQUAL BROTHERS (Reggae Roots Dub - Baiona)



Equal Brothers

Equal Family elkartearen inguruan elkartu reggae dub zale, musikari, hautatzaile, moldatzaile eta ingeniari kolektibo bat da. 70garren hamarkadako Jamaikar musika, inglaterrako 80ko hamarkadan erreproduzitu soinu eta " UK roots style " soinuak pasarazten dituzte. Equal-eko Musical Ben, Meek man eta Brother Batist partaideek Sound Systemarentzat musika zati berezi eta eraginkorrak moldatzen dituzte.
Equal Brothers Sound System mailako talde hoberenetarik bat da eta besterik ez!

http://www.equalbrothers.com/
http://www.myspace.com/equalbrothersdubsound

Arratsaldeko 2etatik goiti, GAZTETXALLENGE® lehiaketa proposatua izanen zaigu. Herri jokoak eta karia hortarat asmatuak izan diren jokoak nahasiz lehiaketa polita plazaratua izanen zaigu.

Herri jokoetatik sei proba
LASTO ALTXATZEA
LASTO BOTATZEA
TRONTZA
ESNONTZIAK
SOKATIRA
GORDI ALTXATZEA

Karia hortarat asmatuak izan diren hiru joko
PAINT-BALLEKIN TIROAK
SOROPIL HOCKEYA
FREESTYLE SOCCER

Lehiaketa berezia da : bakoitzak nahi duen probarekin indarrak neurtzen ahal baititu. Proba guztiak independenteak dira. Proba bakoitzetik atera diren hobereneri saria eskainiko diegu.

GAZTETXALLENGE ® lehiaketa, bere izena eman nahi duen edozeini idekia da (aitamen baimena eta baliozko mediku agiria ukan behar direlarik). Jendeen nahasketa laguntzeko taldeak tokian bertan osatuko dira .

GAZTETXALLENGE ® lehiaketa GAIA elkartearekin batera antolatua da (Herri Jokoen babespena eta garatzea). Lehiaketa bukatzerakoan, Herri Kirol erakustaldia bertan emanen dute, Iparraldeko jokolari hoberenek.

Gunearen planoa

Gunea Amodiozko Ganbara auzoan kokatzen da, Urrezko hareen hondartzaren ondoan.



3 BIDEO LEHIAKETA

Angeluko gaztetxearen bosgarren urtebetetzearen kari, bideo lehiaketa plazaratzen dizuegu.

Arauak

Bakarrik edo taldeka, molde xelebre batez zuen burua filmatu behar duzue zorionak gaztetxeari ospatzeko. Gero, gure helbidera bideoa igorri : angelukogazteak@hotmail.com edo bideoaren lotura bat (internet bideo zerbitzu batean grabatuak badira) eman behar diguzue. Bideo horiek gure webgunean ezarriak izanen dira.

Sariak

Irabazleen izenak urriaren 20an ezagutuak izanen dira, egun hortan antolatzen dugun bestan, Amodioaren hondartzan, Angelun. Erabakiak gaztetxeak hartuko ditu ardura osoz eta leialtasunez.

Noiz

Lehiaketa abuztuaren 1an hasten da eta urriaren 10an gauerditan bukatzen.

WEBGUNEA

Gaztetxeak webgunea dauka

http://www.angelukogaztetxea.eremua.info

5. urtebetetzeen kari, weborri berezia atera dugu, lasai bisita dezakezue!

HELBIDE ELEKTRONIKOA

Helbide elektronikoa ere badugu

angelukogazteak@hotmail.com

TELEFONOA

Telefono zenbakiak uzten dizkizuegu informazio gehiagorentzat:

Lola: 06.19.75.51.47
Fred: 06.17.56.08.76
Fabien: 06.30.07.64.99

PRENTSAURREKOA

Prentsaurrekoa antolatzen dugu:

URRIAREN 16an ASTEARTEZ
Amodiozko Ganbararen harpean
Goizeko 10etan